



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Tetrapphilla Ensemble taldeak *Ad Maiorem Dei Gloriam* kontzertua eskainiko du Arriaga Antzokian, San Ignazio Loiolakoaren bizitzan zehar egindako ibilbide musikala

- Asteazkenean, azaroaren 24an, taldeak Santuaren figuraren gaineko begirada eskainiko du, birtuosismoz eta dotoretasunez, haren garaiko musikaren bitartez eta haren bizitzako gertaera garrantzitsuenekin zerikusia duten beste pieza batzuen bitartez.
- Kontzertuan Antxieta, Bizcargui edo Desprez musikagileen lanak interpretatuko dituzte, besteak beste.

Bilbo, 2021eko azaroaren 19a. – San Ignazio Loiolakoaren bizitzan zehar (1491-1556) egindako musika-ibilbide bat. Horixe da **Tetrapphilla Ensemble** taldeak datorren asteazkenean, azaroaren 24an (19:30ean), Arriaga Antzokian eskainiko duen proposamen interesgarria.

Ignazio Loiolakoa XVI. mendeko pertsona ospetsurik nabarmenenetako bat da, zalantzarik gabe. Jesusen Lagundiaren sortzailearen bizitzan zehar egindako ibilbide honetan, bizimodu zirraragarri baten kontakizunean murgilduko dira ikusentzuleak. *Ad Maiorem Dei Gloriam* (AMDG) Jesusen Lagundiaren goiburua da. Erakundea mugarri izan zen kristautasunaren sorreran, eta eragin handikoa mendebaldearen historian, XVI. mendetik gaur egunera arte. Eta esaldi hori, ***Ad Maiorem Dei Gloriam***, aukeratu du Tetrapphilla Ensemble taldeak santuaren figuraren gaineko begirada eskaintzeko. Garai hartako musika eta haren bizitzako gertakaririk garrantzitsuenekin lotutakoa erabiltzen ditu horretarako, era dotorean interpretatuz.

Proiektua taula ginean eskaintzeko, Tetrapphilla Ensemblek talde-aukera berritzailea proposatzen du: akordeoi mesotonikoa, txirula ezti eta ahots-laukotea. Eta musikari dagokionez, XVI. mendeko musika-lanik ederrenetako batzuk aukeratu ditu, besteak beste, J. Antxieta (1462-1523), G. M. de Bizcargui (1460-1528), J. Desprez (1440-1521) eta C. de Morales (1500- 1553) musikagileen lanak, besteak beste.

Arriaga Antzokira bertaratzen direnek aukera paregabea izango dute San Ignazioren garaiko eta hark bisitatu zituen lekuetako musika bikaina entzuteko, nazioarteko kritikak goraiatu dituen musikarien eskutik. Arriagako eszenatokian, **Ander Telleria** ikusiko dugu, akordeoi mesotonikoa jotzen, eta **Vanesa García** sopranoak, **Elena Ruiz-Ortega** kontraltoak, **César Polo** tenorak eta **Jorge Apodaca Aisa** baritonoak osatutako ahots-laukotea. Elkarrekin, Tetrapphilla Ensemble boskotea osatzen dute, eta

proiektu berezi honetarako seikote bihurtzen da, taldeak **Anna Margulesen** laguntza eta partaidetza izango baitu. Anna Margules txirula jotzaile handia da eta kontzertuak ematen ditu hainbat ganbera-talderen kide gisa zein bakarlari gisa, Europako eta Amerikako geografiko leku gehienetan.

Taldeari buruz

Tetraphilla Ensemblede kideek ahots-laukote mistoaren eta akordeoi mesotonikoaren arteko uztarketaren soinu-aukerak aztertzeko asmoarekin sortu zuten taldea. Bide berrien bila, gogoko dituen errepertorioen artean biri erreparatzen die taldeak: antzinako musikari eta musika garaikideari, hain zuzen. Doinu propioaren bilaketa da taldearen bereizgarritasuna, eta, diziplina anitzeko jarrera estetiko ireki baten alde egiten du.

Boskoteak 2019an ekin zion bere ibilbideari, eta bereziki azpimarratzekoa da 2020an eta 2021ean Donostiako Musika Hamabostaldian parte hartu izana, Zaragozako Auditorioan, Zumarragako Antioko Ermitan eta Azkoitiko Udaberriko Jaialdian emandako kontzertuak, besteak beste, eta Ander Telleriaren *Horos* diskoan parte hartu izana.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 18 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Tetraphilla Ensemble

Tetraphilla Ensemble.

Sopranoa: **Vanesa García.**

Kontraltoa: **Elena Ruiz-Ortega.**

Tenorra: **César Polo.**

Barítonoa: **Jorge Apodaca Aisa.**

Akordeoi mesotonikoa: **Ander Telleria.**

+

Txirula eztiak: **Anna Margules**

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus